


Alemaniano Bonn hiriko fiskaltzak
DNA proba egingo dio Jan Ullrich
txirrindulariari. Dopatu delako frogarik
ba ote dagoen ikertu nahi dute horrela.





Alemaniano Bonn hiriko fiskaltzak
DNA **proba** egingo dio Jan Ullrich
txirrindulariari. Dopatu delako **frogarik**
ba ote dagoen ikertu nahi dute horrela.



PROBA eta FROGA

Sarri nahasten ditugu bi hitz horiek.



'Froga'

Zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio duena.



Legeria on batean oso puntu garrantzitsua da testigantzak sinesgarriak izatea eta delituen **frogak** garbi zehaztea.

Cesare Beccaria, *Delituez eta zigorrez*, 1764



'Proba' hitzak, berriz, hainbat esanahai ditu.

1. Etsamina, azterketa.

● *Unibertsitatera sartzeko proba*

● *Euskara-proba*

● *Ahozko proba*

2. Dema (herri-kiroletan), norgehiagoka, lehiaketa, indar-neurtzea.

● *Datorren domekan idi-proba ei dago Eibarko plazan.*

● *Urliak irabazi zuen kirol-proba.*



'Proba' hitzak, berriz, hainbat esanahai ditu.

3. Esperimentua, saioa, saiakuntza (laborategian eta abarretan).

🌐 *Laborategiko **proba** bereziek, elektromiografiak esaterako, nerbio medianoaren eroapena oso motel doala argi eta garbi erakusten dute.*

4. Inprimategikoa. Behin-behineko inprimatzea, akatsak-eta zuzentzeko.

🌐 *Liburuaren lehen **probak**. (*Liburuaren lehen **frogak**.)*

🌐 ***Proba**-zuzentzailea behar dugu.*



Okerrak dira, beraz, adibide hauek:

- * DNA **froga** egiteko prest dagoela adierazi du Urliak.
- * Idatzizko **froga** gainditu dutenen zerrenda.
- * Bihar izango da atari-**froga**.
- * Matematika-**froga** gainditzeko, tarteko maila edo maila altua lortu behar da
- * Irakaslea behin bere kalifikazioak espedientera pasatu ondoren, 3 lanegun izango ditu ofizialki sinatzeko. Ikasleak kalifikatzeko ekitaldi nagusia ez da bukatzen irakasleak **froga**ren akta ofiziala sinatzen duen arte.



Hauek erabil itzazu lehengoen ordeaz:

- ✓ DNA proba
- ✓ Idatzizko proba
- ✓ Atari-proba
- ✓ Matematika-proba
- ✓ ...probaren akta ofiziala



‘Frogatu’ eta ‘probatu’ aditzek, halaber, esanahi desberdina dute.

Hona adibide bat:

*Herriko bertso-taldea izan daitekeenaren isla: hiru-lau bertsolari on samarrak hogeita hiru-lau urtekoak, bertsogintzan plazaratuak jada eta norainoko bidea egin zezaketen **probatu** eta **frogatu** nahi zutenak.*

Andoni Egaña, *Hogeita bina*, 2004

Datorren astean jorratuko ditugu **‘probatu’** eta **‘frogatu’** aditzen hainbat adiera.

